

LARRESORO AND COMPANY: EZ GAUZAK NASTU!

Edozein nasikeri gauza txarra da; baiña gaiztoz egia danean, txarragoa. Onena izanik ere, ez-jakifien bat salatu dezake; ain on ezteanean, asmo zitala edo, beintzat, ez gauza garbirik. Lafon il dala-ta, gizon jakintsu au goratu bearez nasikeritan ibilli diranak, berak ikus bezate zein mailatan dauden, ez-jakin uts asmo onekoen artean, ala beantean.

Goazen arira, Lafon jaunak, gizon jakintsu eta lotsa onekoari dagokion bezala, ezta "H madarikaturik" ez bedeinkaturik aiatu. Olako narraskeritara jeitxekoa eztan bera; goragotik edo sakonagotik joka zuan beti. Aren izenean madarikaziorik izendatu dutenak ez diote aren jakinduriari eta izenari mesederik egin. Pekatu ortan erori da gure Larresoro purrustalaria. Ezta jakin Lafon zana gorensten, besteren batzuei ostikoren bat edo uztarkaren bat aurtiki gabe. Letra bat, "H madarikatua", oso on-iritzi aunditan omen zeukan Lafon jaunak, batez ere eztaikin nungo "H palatalizatu". Letra "madrarikatu" ori ez omen du oraindaiño inñori ongi aztertu.

Ain zuzen, orretxengatik, ongi aztertu gabea dalako, gizon jakintsu ori oso apalatasun aundiz mintzo da letra ortaz beti. Baiña Larresorok idatzia irakurri duten askok esan dute, noski, oso siñisturik: Orra, jakintsuak nola dauden letra madarikatu orren alde. Zertan dabilta ze gure arteko petrikilloak? Zergatik ez dute argia baiño argiago dagona ikusi nai eta beren buruak makurtu?

detzekoa, eta beren agotan, nere ustez, eztan faltako madarikazioaren bat ain gizon argizuzen iritzira makurtzen ezteranen aurka.

Baiña Lafonen iritzi apala ona emen: bestek besterik uste badute ere, euskerak jatorrizkoa duen ala ez erabaki gabe, itz oietako H ori euskeran oso antziñakoa izan zala; berori da Zuberu-alde batzuetan eta Erronkarin y-biurtu dana, palatalizatu dana. Edo, beintzat, antziñakoa izan ezinik or letra orrek etzuela. Guzti au dio Lafonek, ipotesi bezela, "sous toutes reserves". Ori da jakintsu erne eta apal baten izketa. Or ezta ageri ez madarikapenik ez bedeinkapenik. Or lenari begira mintzo da jakintsua, len eta orain nonbait gertatzen danari begira, ez zer egin bear danari begira. Baiña emen ere jakingarria da Georgiako izkuntzari buruz esan duena: oraingo izkuntza literarioan, izkuntza oietan H orren aztarnarik eztailegditu, "a disparu devant les voyelles". Au ixildu egin du Larresorok, ez noski egiaeren maitez. Egi ez dezagun aztu ixiltzen diran egiak, edo erdizkakoak, gezurrik gaiztoenak dirala asokan.

Larresoro madarikazio-zabaltzaille laikoari santu izeneko bat etorri zua kanta-lagun, joan dan epailako 11-an, asteleneko orrian, Donostian: San Martin jauna. Santuak beti dauzkagu gu pekatuak baiño obetat, biotz obekotzat. Eztera geiagoko gabe madarikazio-urtika asten. Orregatik Larresororen luman "madrarikatua" zana, beste omen luman letra "arbutuatu" biurtu da. Marikatua izan, arbutuatu izan, Larresorori buruz esanak beste santu izendun omentzat berdin balio du. Baiña onek badu besterik: borondaterik santuezan, noski, bere aldeko egiten du Lafon zana, bere euskera batiaren jarraitzaille zintzo. Ori erakutsi omen zuan ark Leizarragaren omenaldian egindako itzaldian. Batasuneko errege-bidea artu omen zuen artean Zuberuako euskeran idatzi izan zuan maisu orrek (zenbat alidiz?). Baiña kontu santu-izenekoan esanekin ere. Bada emen egi eztaikin. Zein errege-bide da Lafonek Beskoituzen artu zuana? Euskaltzaindiarena dalakoa? Ez, Lafitte jaunak bere Gramatikari erakutsi zuena baizik. Askoentzat, eta batez ere zuberotarrentzat, Manex-euskera daga. Lapurdieraz eta Benaparroako euskeraz nastua, Lapurdiera literario berria. Orri esan zion Lafon jaunak itzaldi artan errege-bidea. Errege-bidea, mugaz andiko euskalduzentzat. Arako asmatua, ez mugaz emendikentzat. Eta errege-bide orri eusten diote anglo euskalduzent, eta zergatik bide ortatik jotzen duten, Lafitte jaunari entzun zion batek esaten, argi eta garbi: "Gu geure erriarentzat mintzo gare, eta arentzat izkribatzen dugu". San Martin jaunari bearbada etzala au ategin, baiña egi ala da. San Martini gertatu zaio, noski, esanera zarrarena: Bakoitzak bere opillari su, eta bere santuari errengutu.

Jokabide erreza da orixe, baiña ezta zuzenbidea, ez jakintzaren bidea. Ezta Lafon ilberriarena. Lafon jaunak ezta zer-ikusirik ez gure idazle laikoaren ez santu-izenekoaren esanekin. Larresoro and company: obe zenuen gizon jakintsu ori bere mailan utzi, eta ez andik zuten be-maillatara jexi erazi, aren esan eta erakutsiak orrenbestean lorrindu eta nastu gabe.

"euskeraz egin" ikas-liburuak

Euskeraren sorleku eta gordailu, gure baserrik izan diranik ez du, noski, inñork ukatuko. Gaur oraindik ala diranik ere, nik uste, ez daitekeela ukatu.

Aurrerakoan, ordea, mekazarizta indargetuz joango da eta bestelako bizikera, kale-girokoa, egumetik egutera ugarituz. Aitorpen au ere, aurrenekoa bezain uka-ezina dala iruditzen zait.

Euskerak iraungo baldin ba'du (iraun-ekazio ba'diogu), bitariko langintza burutsu au indartzea beste biderik etzailgu gelditzen: baserrikoari eutsi eta kale-giroa irabazi.

Kale-giroan, berri, ikasketak eta jakintza-arloak irabazi bear ditugu euskerarentzat. Edo berdin dana: ikasketarako eta jakintzarako landuaz, gaitu eta egokiagotu euskera.

* * *

Irakaskintza euskeraz emateko eran atek zabaltzen asiak diralarik ere, nauko arlotz gertatu gera, lanabes edo tresnarik gabe, ikas-liburuak ez gendekakako. Baiña ez da beti orrela izango. Asi dira argitara azaltzen emaitza ugarien astikin itzaropentsu eta bizigarriak.

Ikastaro berriaz batera etorri zaigu bosteko liburu-sorta, bost ikas-liburu bitain, alegia, Iraoagotia'tar Fermín pastotarra dute egile. "EUSKERAZ EGIN" izeneko bost liburuok. Oñiarri-Eziera Orokorra ditzaitzen Irakaskintzaren bost mailletarako beraritz eginak dira, maila bakoitzerako bat.

Urtea joan eta urtea etorri, mailaz igo arren ere, beti gai berdintsuak irakusten jarraitzeko arriskua zan oraindaiño. Aurrerakoan, berri, maila bakoitzean aski itzango da, berari dagokion ikas-liburua irakastea.

* * *

Aurrenengo iru mailletakoak zisa bereko egitura dute, lama zati nagusi dituztelarik. Adibidez: urteko lau arreak dira ikasketaren ardat, ale batean; bestean, berri, aberak, landareak, gizakia eta osasuna.

Izkuntza-arloa landutzeko bide diranez, dakiten euskera sakondu eta aberasteko erraz-bideak eskeintzen ditu pastotar gazteak. Izena eta izenlaguna, aditza eta aditzlaguna ditu ikas-gai. Beretala arketak, eredu-gisara ipiniak, zero Irakasleek beste geiako eskuetaratu ditzatzketien ikasleeri.

Bakoitzean dakarte irakurgai labor bana, baita jolas-gisako soinketa erraz bana eta euskal-dantzak ikas-aldizateko doinu-zati bana ere.

Zati bakoitza amaitzeko, ipuin bat. Eta gutzia margodun apaingarritz jantzi eta dotoretua.

* * *

4^{gn} eta 5^{gn} mailletarakoek beste era bateko egitura dute: bata 18 ikas-gai ditu eta besteak 23.

Izkuntza landutzeko bide egoki eta aberasgarria eskeintzen du 4^{gn} aleak, gai bakoitza zapi ataletan banaturik: izketa, idazketa, marrazki-arloa, euskal-izitzi edo gramatika-arloa, ikusi ta ikasi, irakurgai.

Izkuntz-ikaseta sakontzeko, bear ba'da, garrantzi aundia ematen zitzaion oraindaiño, irakurtzen eta ulertzen ikas-teari: bestek itzez maiz-ta itzez emana ondo artzeari, alegia. Nor-berak emateari, ordea, ajola gutxiegi eman izan zaio. Asko landu bear dan eta orain-aldian landu nai dana, beste alderdi au da: emateko alderdia, egoki itzigiten eta egoki idazten irakatsiaz. Lan zailagoa, baiña aberasgarriagoa.

* * *

Eta 5^{gn}na zer? Eliziti edo gramatikaz apurka aurreko mailletan eman dituanak, laburki ikas-berritu eta sakonagotara jotzen du. Gramatika-gai sakonak, 5^{gn} mailan ez ezik 6^{gn}nean ere ondo ikasteko lanik asko emango dutenak. Aldi berean, euskal-idazlerik nagusienen berriak: emerretz idazle ezagunagari aipatzen ditu, labor bezain errazturik idazle txikitzen.

Beste gauza jakingarri asko esan ditzakegun arren, auxe besterik ez: euskera erazzen idazlerik datozkigula. Berziki Bizkat-Gipuzko'etan gutziz ulergari izateko eran oretu eta ao-goatuzkat diranez, beste euskalkietarako ere ez dira arrotz eta uierkatiz gertatuko.

Bai lan-tresna egokia ikastoletarako eta euskerarik irakatsi nai duten beste ikastetxeetarako. Ikastaro berriak damaigun berri pozgarria.

Gaztahaña'tar Jesus'ek

